

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0
positibo berri

2.314
positibo guztira*

zehaztu gabe
hildako

1.531
hildako EAEn

*Hernanin 60 Astigarragan 20

NAFARROAN

71
positibo berri

9.159
positibo guztira

1
hildako

71
ospitalizatuta

Sendatuak 16.331 EAEn; 5.442 Naf.

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA



Ezin ikutzea, beste oztopo bat itsuentzat

HERNANI
LUIS GORROTXATEGI

2



Udal Plana martxan, krisiari aurre egiteko

ASTIGARRAGA
UDALA

5



Galarretako ikuskizuna ekainean bueltan, nobedadeekin

URUMEA
ERREMONTEA 10-11

Egunean 2.000 razio solidario, elkarlanean

Jakioro proiektuarekin ari dira lanean, apiriletik, Diametro 200, Orona Fundazioa, HAZI eta Gurutze Gorria, beharra daukatenei menu osasuntsua helarazteko egunero.

12-13



Mendekoste 'sinbolikoak' balkoitik gaur, danborradarekin

HERNANI
FLORIDA-ETXEBERRI

4



Graduaketekin lanean etengabe, bi hilabetetako lana pilatuta

HERNANI
BIOKBI OPTIKA

3

«COVID-19ak agerian utzi du zaintza-lanen krisi itzela, eta bizitzak ez daudela erdigunean»

Bizitza erdigunean jartzeko deia luzatu dute, adierazpen baten bitartez, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuek, eta horrekin bat egin zuen Goizuetako Udalak, astearteko Plenoan. Etxeko eta zaintzako lanen banaketa, oraindik ere bidezkoa ez dela nabarmendu dute, besteak beste.

ARANO-GOIZUETA
BERDINTASUNA

6

Hernaniko haureskola

MATRIKULAZIOA ZABALIK

Online egiteko aukera maiatzaren 21etik ekainaren 8ra, biak barne.

Aurrez aurre egiteko aukera ekainaren 1etik ekainaren 8ra, biak barne.

Sagastialdeberri 2
943 55 29 91

Itxas-Buru Sagardotegia

J.D. EUSKAL SAGARDOA



Ekainaren 4an irekiko ditugu ateak

Ostegun gauetik igande eguerdira. Covid-19 egoera dela eta, arauak betez, beharrezkoa izango da mahaia erreserbatzea. Aldez aurretik, mila esker.

Osiñaga Auzoa
20120 HERNANI
TEL. 943 556 879
www.itxasburusagardotegia.com

«Itsuak garenok gauzak ikutu beharra daukagu, eta hori oztopo bat gehiago da guretzat»

Alarma egoerak egunerokoa gehiegi aldatu ez diola azaldu arren, Luis Gorrotxategik onartu du oztopo berriak sortu dizkiola, zenbait kasutan. Bereziki «hankak luzatzeko» atera da kalera, eta etxeko eskaileretan ere egin du ariketa fisikoa, anekdota eta guzti: «bost pisuak igota, 90 eskaloi dira guztira, eta 12 aldiz igo eta jaisten saiatzen nintzen, 1.080 eskaloi direlako horrela; eskatzen dugun pentsio minimoa bezalaxe».

HERNANI LUIS GORROTXATEGI

Nola daramakizu COVID-19ak eragindako egoera hau?

Normaltasunean ere, nahiko konfinatuta bizi naizela esango nuke; nire egoeran dauden gainerakoen kasua ez da hori izango, agian. Nik ordu asko pasatzen ditut etxean, gainerako herritarrekin alderatuta. Ordenagailuari itsatsita pasatzen ditut ordu asko, hori baita niretzat munduari begiratzeko leihoa. Beraz, niri ez zait gogorregia egin konfinamendu egoera hau.

Arazoak hasten dira konfinamendua maldan behera hasten denean. Kalera ateratzen garenean, alegia. Izan ere, guk gauzak ikutu egin behar ditugu, beharrezkoa da guretzat. Eta hori da, esaten dutenez, kutsatzeko edo birusa hartzeko modurik errazenetakoa. Beraz, guretzako oztopo bat gehiago da. Entzungorrek ere badituzte beraie arazoak. Ezpainetan irakurtzen dute beraiek, eta maskarilla jartzen badugu, izorrratu dugu.

Ikutzearenak ez du konponbide erraza izango...

Ez dago alternatibarik. Nire bas-toia da nire behatz luzeena. Bastoiarekin moldatzen naiz, baina nire ibilbideak dira gertukoak, eta ibilbide luzexekoak egiteko, laguntza behar dut. Tokiren batean sartzen naizenean, ikutu behar dut pareta, mahaia... jakiteko gauzak non dauden. Hori

dena ikututa egiten duzu, eta ez dago alternatibarik. Horregatik, garrantzia handia ematen diot eskuak garbitzeari. Oinarrizkoa da. Nik guanterik ez dut erabili; azken batean, eskuekin transmititzen ez duzuna, guanteekin transmititzen duzulako.

Maskarillarekin ere joaten naiz, nahiz eta ez diodan ikusten abantaila haundiegirik; hainbeste gauza irakurri ditut, dagoeneko ez dakidala non dauden abantailak eta non desabantailak. Baina nolabait akordio inplizitu bat egiten dut gainerakoekin, esanez bezala maskarilla jantziko dudala, lasaiago egongo badira.

Bi metroko tartea uztearena ere zaila da zuen kasuan.

Horretan, besteen menpe gaude. Itsuak garenak behartuta gauden gainerakoengan konfiantza gehiago izaten. Beti daukagu kezka, ondo ari ote garen edo enbarazu egiten dugun. Eta inork ez badigu esaten, galde-tu egiten dugu, *hemen ondo al nago?* edo *enbarazu egiten al dut?* Gure hiztegian daukagu barneratuta esaldi horiek, eta egoera honetan, are eta gehiago. Naturaltasuna lagungarria da horretan.

Berdin gertatuko zaizue, lurrean edo paretetan jartzen diren marka edo jarraibideekin, ezta?

Hala da, bai. Guretzako horiek ez dute balio, erabat salduta gaude. Hori da beste adibide bat, ardura



Luis Gorrotxategi, artxiboko argazki batean.

jendearengan uzten dugun kasu horiena. Espero dut, gaizki ari banaiz esan egingo didatela, ez dago beste misteriorik. Nik zortea daukat horretan, erosketak nire bikoteak egiten dituelako, Evak. Batzuetan laguntzen diot, batez ere hankak luzatzeagatik, baina oso gutxitan.

Laguntzeko prestutasuna nabaritu duzu, jendearen aldetik?

Esango nuke, beti izan den sentsibilitate hori, edo besteren larrutan jartzeko enpatia hori, jendeak gehiago hartu duela kontutan garai honetan. Baina hori bakoitzaren araberakoa da. Eta horretan ez dago araurik, bakoitzaren sentsibilitatearen eta kontzientziaren araberakoa da.

Nire portaletik 50 metrora abentura bat da niretzat. Baina hori ez dut askorik bizitu garai honetan, Evak egin dituelako erosketak eta horrelakoak. Tokatu zaidanean, betiko jarrera nabaritu dut, laguntzeko prestutasun hori; beste garai batzuetan baino zertxobait biziagoa, akaso.

Erakunde edo elkarteetatik, eskaini dizute laguntza?

Erakundeetatik edo elkarte-

tatik jaso ditut deiak, bai, nire egoerarengatik galdezka. ONCE-tik deitu didate, Elkartutik ere bai... Zer moduz nagoen, beharren bat ote dudun, larrialdirik suertatuz gero badudan lagunduko didan inor... Neurria hartzeko deiak izan dira, jendea nola dagoen. Zentzu horretan, nik ez dut arazorik izan, baina izango dira kasu gordinagoak. Gomendioak eta jarraibideak ere zabaldu dituzte. Hernaniko udalletxetik ere deitu zidaten behin, nire egoera pertsonalarengatik galdezka, eta laguntza eskainiz.

Zerekin bete dituzu konfinamenduko orduak?

Ariketa fisikoa egiten saiatu naiz, pixka bat. Bizikleta estatikoa daukat etxean lehendik, eta etxeko eskaileretan ere ibili naiz, portaletik hasi eta goraino, igo eta jaitsi. Anekdota bat ere badaukat horrekin. Nire etxeak bost solairu dauzka, eta solairu bakoitzaren artean 18 eskaloi edo maila daude. Horiak dira guztira 90 maila. Eta saiatzen nintzen 12 aldiz igotzen eta jaisten, horrela direlako 1080 eskaloi; hain justu, pentsiodunek eskatzen dugun pentsio minimoa bezalaxe.

Gainerakoan, polita izan

da balkoietan izan den mugimendua, konfinamenduan. Nik egunero hartu dut parte. Baina bestela, kanpoaldearekin harreman haundirik ez dut izan. Honek hobera egiten duenean, gustora hartuko ditut ohiko harremanak, berriro saretze sentsazio hori izatea, denok behar dugu eta.

Kezkatzen zaitu, normaltasun berria deitu duten horretara iristean, gauzak nola izango ote diren?

Uste dut denok izango dugula kezka, hemendik aste batzuetara nola izango den pixkanaka lehengora bueltatzea. Normaltasun hitza debekatu egin diot nik, neure buruari. Ez dut sinesten normaltasun horretan, horretara bueltatu behar dugula esaten diguten bakoitzean. Orain bizi dugunaren arrazoi gehienak, lehen ere bazeuden. Birus hau izan da istripu bat, gauzak mahaigaineratu dituen. Gogorra izan da, noski, bi hilabetez etxean sartuta egotea. Baina hortik aurrera, beldurrak, kezkek, ez jakitea, zenbaterainoko informazioa daukagun, horretatik zenbat den egia... Ez dakit zer deskubrituko dugun, zer portaera hartuko dugun hiritar bezala. Baina oso garrantzia haundiko egoera ikusten dut. Eta etxean zaudela, gizarteratzeko gogo hori areagotu egiten da. Besteen iritziak jaso nahi ditut. Gauza pila bat irakurri eta entzun ditut, nahaste berraste haundi bat daukat buruan; eta nahi ditut nire argudioak neurtu besteekin.

Bitartean, telefonoarekin konformatu behar...

Beharbada konfinamenduaren hasieran bai, telefono deietatik tira genuen gehiago; baina gero itzali egin zen hori, eta gehiago izan da *whatsapp*arena. Ikargarria izan da hori. Nik ez nuen telebista apenas ikusten, irratia ere gutxi; eta berriro ere, ordenagailua izan da nire laguna. **K**

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, J. Osa, M. Ramirez
de Alda, I. Santa Cruz
eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM



«Bi hilabeteko lana pilatu zaigu, bezeroek graduazioa eguneratu beharra dutelako»

Eguneroko martxa berreskuratzen ari da Biokbi optika, martxoan eta apirilean urgentziak bakarrik hartu ondoren. Egoera zein den azaldu, eta gomendioak eman ditu Alejandra Alcibarrek.

HERNANI BOKBI OPTIKA

Ez dira hilabete errazak izan hauek, optikentzat. Bi hilabetez urgentziei arreta egin ondoren, maiatzean sekulako lan kargari egin behar izan dio aurre Hernaniko Biokbi optikak.

«Urgentzietarako egon gara martxoan eta apirilean. Ez genuen graduatzen, ez geneukalako babes elementurik horretarako. Optika itxita zegoen, eta bezeroekin hitzordua jartzen genuen, lentillak aldatzeko, likidoak saltzeko edota konponketaren bat egiteko. Laborategi-tatik, niri etxera bidaltzen zidaten materiala, eta optikara ekartzan nuen», azaldu du Alejandra Alcibar optiko optometristak.

Apirilaren bukaeratik aurrera hasi ziren graduaketak egiten, babes indibidualerako elementuak, maskarillak eta pantailak jasota: «lan asko pilatu da bi hilabetetan, eta etenik gabe aritu gara graduaketak egiten. Bezeroek, 50 eta 90 urte bitartekoak bereziki, beharrezkoa dute graduazioa eguneratzea eta betaurrekoak berritzea, bestela ez dute ondo ikusten. Baina horiez gain, konfinamendu aste hauen ondoren, etorri da jende gaztea optikara, ikasleak edota telelana egin dutenak, enfokatzeko zailtasuna zeukatelako, begietan nekea eta buruko mina, gertuko ikusmena gehiegi lantzeagatik, eta ordenagailua, mugikorra... erabiltzeagatik».

Horrela, azkenerako, 26 lente iritsi zitzaizkien batera; «eta orduan, betaurrekoetan muntatu behar dira, noski. Hori ere sekulako lana da».

Zentzu horretan, laborategi-tatik ekartzen dieten materialarekin ere izan dute arazorik, alarma egoeran. «Sekulako saltsa izan dugu: Madril zero fasean zegoen, eta gure laborategia japoniarra izan arren, Cosladan dauka fabrika bat; lente batzuk Ingalaterratik iristen zaizkigu, beste batzuk Taiwanetik... Eta garraioa oso konplikatu izan da, beraz pentsa. Normalean hiru egunetan iristen dena, orain 15 egunetan iritsi da. Baina dagoeneko hobeto daude gauzak, ondo iristen zaizkigu materialak», azaldu du.

«Bezeroekin oso eskertuta nago, dena betetzen dute»

Alcibarrek azaldu du, arau batzuk jarri zituztela, eta bezeroek bete egin dituztela: «ordua ematen dugu kontsultetarako, eta jendeak oso ondo betetzen du. Hernaniko bezeroekin oso eskertuta nago, dena betetzen dutelako. Hemen ez da inor arduragabea, ez lehen eta ez orain. Barruan bi pertsona egoten dira gehienez, eta gainerakoek kanpoan itxaroten dute».

Maskarillen kasuan, onartu du hasieran kosta egin zitzaioz jendeari, baina Gobernuak derrigorra ezarri zuenetik, denak joaten direla maskarilla jantzita: «graduaketa egiteko ezin duzu segurtasun distantzia mantendu. Hasieran, ordua hartzeko deitzen zutenei, esaten nien maskarillarekin etortzeko; baina zuzenean optikara azaltzen zirenek, batzuek ez zeukaten maskarillarik... Hala ere, nik bi maskarilla jartzen ditut FP2 motakoak. Arnastea kostatzen zait, eta nekatuta bukatzen dut, baina neurri hori hartzen dut. Orain, denak datoz maskarilla jantzita».

Optikan, gel hidroalkoholikoa erabili dute, higiezia mantentzeko; eta betaurrekoak garbitzeko, 70 graduko alkohola edo ur oxigenatua: «makina bat ere erosi dugu, izpi urdinekoa, oraindik iritsi ez zaiguna. Ez da azala iluntzeko erabiltzen den hori, noski... Beste onda luzera bat dauka». Kontsulta, berriz, 70eko alkoholarekin desinfektatu dute, bezero bakoitza hartu aurretik.

«Graduatzerakoan sekulako lanak», lurrunagatik

Maskarillak erabilia, ordea, segurtasunaren trukean beste arazo bat sortu zaie, graduatzerakoan: «sekulako lanak izaten ditugu. Fotopteroa lurrunez betetzen zaigu, eta aritzen gara lenteak banan-banan hartzen, aireatzen... Lente asko dira erabiltzen ditugunak, eta ezinezkoa da denei ematea lurrunkentzeko likidoak edo gelak».

Hortaz, «pazientziarekin eta motelago» egin behar izan dute. Kasurik txarrean, bai erabili dutela pantaila bat, maskarilla-



Alejandra Alcibar optiko optometrista, Biokbi optikako kontsultan.

«Konfinamendu aste hauen ondoren, etorri da jende gaztea ere, ikasleak edo telelana egin dutenak, zutelako enfokatzeko zailtasuna, begietan nekea edota buruko mina»

ren ordez; baina saiatu dira hala ez egiten: «pantailak ezin dira luzaroan jantzita eduki. Kurbatuak dira, ez da ondo ikusten, eta buruko mina eragin dezake; zer esanik ez, betaurrekoak erabiltzen badituzu. Gauza puntualerako dira».

«Lurrunaren kontuarekin, jende pila bat etorri zaigu galdezka, nola konpondu»

Baina graduaketak egiteko bakarrik ez, eguneroko bizitzan ere eragiten die lurrunak, betaurrekoak erabili eta maskarilla jantzi behar dutenei: «jende pila bat etorri zaigu, betaurrekoak lurruntzen zaizkiola eta, nola konpondu galdezka. Gela bukatu zaigu! Hori da onena, eta lehendik ere bageneukan, lanerako edo kirola egiteko eskatzen zuelako jendeak. Orain denak etorri dira bila, eta batera gabe geratu gara; eta uztaila bukarara arte ez dute fabrikatuko».

Horren ordez, likido bat daukate orain, *spray* formatuan. «Lentea garbi dagoela bota behar da, 15 zentimetrora jarrita, eta

gero toailatxo batekin lehortu, toketxoekin. Horrek egiten duena da, lurruna alboetara baztertu, eta erdiko zonaldea garbi mantendu. Xaboiarekin eta, bestelako soluzioak ere eman dituzte, baina ez da egin behar, lenteak kaltetu daitezkeelako», ohartarazi du.

«Eskuak garbitu behar dira, eta aurpegia ez ikutu; guante eta maskarillek segurtasun faltsu bat ematen digute»

Birusa begietatik ere sartu daitekeela ohartarazi da hainbatean, alarma egoera honetan, eta hala azaldu du Alejandra Alcibarrek ere: «birusa mukosetatik sartzen da, eta beraz, begietatik ere sartu daiteke, ahotik eta sudurretik bezala. Horregatik, oso garrantzitsua da aurpegia ez ikutzea, eta eskuak garbitzea gel hidroalkoholikoarekin. Guanteek eta maskarillak segurtasun faltsu bat ematen dute».

Begien kasuan berdin, beraz; ez dira ikutu behar. Baina mallorekin bat edo azkurea izanez gero, eta ikutu behar izatekotan, nola egin azaldu du Alcibarrek: «eskuaren eta behatzen kanpoko aldearekin egingo du, eta ez barruko aldearekin, eskuaren ahurrarekin».

«Lentillekin kontu haundiz ibili behar da garai hauetan»

Zentzu berean, lentillekin ere kontuz ibiltzeko deia luzatu du optometristak: «lentillen higiezia oso ondo zaindu behar da, eta tokatzen denean, bota. Oso adi egon behar dugu, lentillak jartzen ditugunean adibidez,

jarri aurretik gauzaren bat ez ikutzeko, galtzak adibidez. Konturatu gabe egiten ditugu horrelako gauzak, eta arriskutsuak izan daitezke. Izan ere, begietara dioa hori zuzenean».

Horren harira, azaldu du hilabete hauetan ez dutela lentillen adaptazio berririk egin; ordezkoak erostera joan dira bezeroak, bakarrik: «uste dut, lentillak jartzeko asmoa zeukanak, atzeratu egin duela pixka bat, kontu honekin. Izan ere, hasieran erakutsi egin behar zaie nola jarri eta abar, eta eskutik eskura ibili behar ditugu».

Kontsultak, ohiko martxa hartzen pixkanaka

Dagoeneko ohiko martxa hartzen ari direnak, bertan egiten dituzten kontsultak dira. «Bertara etortzen dira batzuk aurreneko aldiz, eta beste batzuk graduazioa eguneratzerara. Bi kasuetan, izan behar du nabaritzen dituzten sintomak mantentzen direlako, eta ez behin zerbait gaizki ikusi dugulako. Adibidez, ordenagailua erabiltzen dugun bakoitzean gaizki ikusten dugula. Beraz, kontsultara datorrenari, aurrena entzuten diogu zein arazo daukan, eta ondoren errebisioa egiten diogu. Hasteko, arrail-lanpararekin aztertzen dugu begia, egitura nola dagoen ikusteko. Izan ere, gerta daiteke gaizki ikustea katarata bat duelako, adibidez; eta ez graduaketa behar dutelako. Kasu horretan, familia-medikuarenera joatea gomendatzen diogu», azaldu du. Eta bestela, graduaketa egin diote bezeroari. **K**

«Danborrada joko dugu gaur balkoietatik, gogoratzeko gure asteburua dela hau»

Asteburu honetan ziren ospatzekoak Mendekoste Jaiak, Florida-Etxeberrin, bailarako festei hasiera emateko. Alarma egoerak ez du ahalbidetuko, baina ez dute ahaztu nahi festen asteburua dela.

HERNANI MENDEKOSTE JAIAK

Asteburu honetan ziren haste-koak, Urumea bailarako aurten- go festak. Ohi bezala, Hernaniko Etxeberri eta Florida auzoetako festek, Mendekoste Jaiak, eman behar zieten hasiera. Baina, oraingoz, ez da festarik izango bailarako herri eta auzoetan; ezagutzen ditugun moduan ez, behintzat. Bertan behera geratu dira datozen aste edo hilabeteo- tako festa gehienak, baina zer- bait egiteko asmoa erakutsi dute, modu sinbolikoan bada ere.

«Ez dugu ahaztu nahi feste- tan gaudela, eta gure asteburua dela hau», adierazi dute Auzoki- de elkartetik. Hori gogorarazte- ko txupinazoa botako dute gaur, goizeko 10:00etan, modu sinbo- likoan, «nahiz eta festarik ez dugun ospatuko».

Arratsaldeko zortzietan zita balkoietan, danborrekin

Eta horregatik jarri dute hitzor- dua arratsaldeko 20:00etan, ba- koitza bere etxeko balkoira ater- ratzeko. «Musika jarriko dugu Auzokide elkartearen, eta zortzie-

tan auzotar guztiak animatu- ko ditugu danborra hartu eta balkoira ateratzera. Danborrada egingo dugu, eta balioko du ez ahaztuzeko festetan gaudela», nabarmendu dute.

Horrekin batera, balkoiak apaintzera ere animatu dituzte auzotarrak, festetako banderak zintzilikatuta, edota Mendekos- teetako kamixetak jantzita, fes- ta giroa jartzeko.

«Tabernak martxan egonda, giro pixka bat izango da»

Azaldu dute, era berean, aka- so auzotarren batek prestatuko duela sorpresaren bat etxeko balkoietik giroa jartzeko auzoan. Eta tabernak zabalik egoteak ere lagunduko du, alaitzen: «orain zabalik daudela, giro pixka bat gehiago nabaritzen da auzoan, eta horrek lagunduko du».

Ekintzarik, ordea, ez dute antolatu nahi izan: «jende hel- du asko dago auzoan, eta arris- kutsua da, segituan hasten ga- relako elkar ikutzen, konturatu gabe», azaldu dute.

Festak ezingo zirela antolatu, garbi izan dute hasieratik: «hau



2000 eta 2014 urteen artean bezala, danborradak mantenduko du Mendekoste Jaien haria. 2002 urtekoa da argazkia.

guztia hasi zenean, alarma egoera ezartzearekin batera, be- rehala jakin genuen ezingo geni- tuela Mendekoste Jaiak ospatu. Egoerak ez zuen baimenduko, eta gainera, biltzeko eta antola- tzeko aukerarik ere ez genuen».

Urtean zehar ekintzaren bat auzoan, beharbada

Mendekoste Jaien oraingo ete- na, ez da izango 2000 urtetik 2014ra izan zena bezelakoa: «datorren urtean bueltan izatea espero dugu! Gure kasuan, Men- dekosteak ospatuta, hauek dira egunak, eta urteko beste garai batean egitea ez zaigu zentzuz- koa iruditzen. Beste kontu bat da, udaran edo, ekintza puntua- len bat antolatzea auzoarentzat; sardin jate bat, adibidez. Betiere, egoera zein den arabera». K



Txupinazoa botako dute gaur goizean, festen asteburua dela gogorarazteko.



Apar festarik ez da izango aurten, baina auzoan giro alaia izan dadin nahi dute asteburu honetan, «gure asteburua da eta».

aurreMATRIKULA

Ekainak

1 → 19

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII
CIFP INNOVACIÓN SOCIAL

*Prestakuntza
lanbidea
etorkizuna*

03 GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

02 ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak (eskaintza partziala modalitatean)

01 ^{3 urteko} OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

☎ 943 55 19 58

✉ idazkaritza@hernanilanh.eus

📍 Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

HERNANI LHII

📷 📺 📘 🐦

www.hernanilanh.eus

Plenoan aho batez onartuta, berehala jarriko dute martxan COVID-19aren ondorioei aurre egiteko plana

Hainbat ekimen, neurri eta dirulaguntza bildu ditu Astigarragako Udalak, Koronabirusak eragindako ondorioei aurre egiteko Udal Planean. Guztira, 400.000 euroko partida bideratu du horretara, arlo ezberdinetan banatuta.

ASTIGARRAGA UDALA

Asteartean bildu zen Astigarragako Udaleko Plenoa, telematikoki, eta baita Tokiko Gobernu Batzordea ere, ondoren. Erabaki garrantzitsuak hartu zituzten bietan. Horrela, hasteko, aho batez onartu zuten COVID-19 birusaren ondorioei aurre egiteko Udal Plana. Bertan bildu dituzte, martxotik gaur arte hartutako neurriak, eta «epe labur zein ertainera martxan jarriko diren ekintzak». 400.000 euroko partida bideratu dute horretara.

Horrekin batera, aho batez onartu zuten, baita ere, zenbait obraren lehiaketak martxan jartzea. Batetik, Perurenako frontoiko auzo lokala egokitzeko obrarena: «erabilera soziala eta anitza izango du, aisialdirako eta auzo elkartearen bilerak egiteko erabiliko baitute auzotarrek, besteak beste. Auzotarren aspaldiko

eskaera da». Bestetik, lehiaketa jarriko da martxan Santiomendi auzoa berrurbanizatzeko: «euri uren saneamendua, argiteria eta zoladura berrituko dira auzoan, eta elektrizitate eta telekomunikazio sareen lurpeko kanalizazioa egingo da». Eta azkenik, kiroldegiko igerilekua bitan banatzeko obrarena ere onartu zuten. Horrekin, igerileku txikian izaten den masifikazioa arindu nahi da, sakonera ezberdineko bi eremu lortuz igerileku haundian: «horrela, zenbait haurrek eremu berria erabili ahal izango dute. Igerileku haundiaren aurreneko bost metroetan egingo da zati hori. Udaran ezin bada, udazkenean jarriko ditugu obra horiek martxan».

Berdintasun Sailaren ikerketa bat martxan jartzeko oinarriak ere onartu ditu Udalak. Beka horrekin, helburua izango da «Astigarragako emakumeen



Itxita egon behar izan dute taberneak, orain gutxi arte.

historia jaso, landu eta herritarren eskura jartzea».

Ordutegi zabalagoa, kiroldegia Asteartean onartu zuten, baita ere, kiroldegiko ordutegia zabaltea. «Herritarrek askotan egin duten eskaera da, eta bereziki lagungarria izan daiteke, pandemiaren ondorioz aforoa murriztu behar den honetan, ordutegi zabalagoa izateak ahalbidetuko duelako egunean herritar gehiagok erabili ahal izatea». Ekai-

naren 8an daukate kiroldegia zabaltzeko asmoa, eta ordutegi berriarekin ekingo dio.

Ohiko ordutegia, igerileku denboralditik kanpoko, honako izango da: asteleheneetik ostiralera 07:00-22:30; larunbategi 09:00-20:00; eta igandeetan 09:00-13:00. Eta aldiz, udako ordutegia, igerileku denboraldiak irauten duen bitartean, hauxe izango da: asteleheneetik ostiralera 07:00-22:30; eta larunbat eta igandeetan 09:00-20:30.

Goizez irekiko den jaiguetan, edota Gabonetako beste egun batzuetan, 09:00-15:00 bitartean egongo da zabalik.

Bestalde, onartu zuten martxan jartzea dirulaguntza deialdia, herrian hutsik dauden lokaletan jarduera ekonomiko berri bat abian jarri nahi duten ekintzaileei laguntzeko, zein itxear dauden negozioen eskualdatzeak sustatzeko.

Foru funtsaren murrizketa dela eta, mozioak

Eta Plenoa bukatzeko, gai beraren inguruko bi mozio aurkeztu ziren. EH Bildurena onartu zen, bere botoekin, salatuz Gipuzkoako Foru Aldundiak «aldebakarrez eta udalei zuzenean komunikatu gabe» murriztu duela udal finantziatorako foru funtsa: «esan ziguten kopuru osoa emango zigutela, eta gero guk zati bat bueltatu; baina zuzenean egin dute murrizketa, jakinarazi gabe», diote. EAJK eta PSE-EEK beste mozio bat aurkeztu zuten, baina ez zen onartu, EH Bilduk kontra bozkatu baitzuen, ez zuelako aipatzen Aldundiak aldebakarrez hartu duela erabakia. **K**

Diru partidak jaso ditu Udalak, merkatariei eta ostalariei laguntzeko, eta familien kontziliazioa errazteko

Hainbat ekimen, neurri eta dirulaguntza bildu ditu Astigarragako Udalak, Koronabirusak eragindako ondorioei aurre egiteko Udal Planean. Guztira, 400.000 euroko partida bideratu du horretara. Plana osorik ikusteko: 'kronika.eus'.

ASTIGARRAGA UDAL PLANA

«Aurrekontuaren egokitzapen haundia» egin behar izan du Astigarragako Udalak, guztira 1.400.000 eurokoa, bi arrazoi nagusi tarteko: batetik, Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen duen foru funtsaren partidaren %20ko murrizketa, milioi bat euro inguru gutxiago; eta bestetik, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko Udal Plana gartzeko partida bat gordetzea, 400.000 eurokoa.

Astearteko Plenoan onartu zituzten aurrekontuaren moldaketa horiek. «Foru funtsaren murrizketa jaso arren, mantendu ahal izan ditugu aurten go proiektu nagusiak, eta jaso ahal izan dugu 400.000 euroko partida hori, pandemiaren ondorioei aurre egiteko».

Kopuru hori, bideratuko

dute hainbat ekimen, neurri eta dirulaguntzatar, dagoneko martxan daudenak edota berriak, arlo ezberdinetakoak.

Horrela, hasteko, udalerriko eta udal instalazioetako garbiketa eta higienara bideratu dituzte 70.000 euro, garbiketa eta desinfekzio lanak egiteko, eta segurtasun neurriak hartzeko. Egutegi fiskalaren aldaketa ere jasota dago Udal Planean, herritarrei betebeharrak ekonomikoak betetzea errazteko.

Gizarte Zerbitzuen arloan, hainbat ekimen martxan

Beste hainbat ekimen jaso ditu Udalak, Gizarte Zerbitzuei dagokienez. Horien artean daude bolondres sarea sortu eta antolatzea; elikagaiak erosteko larrialdiko laguntza, 3.200 eurokoa izan zena; 70 urtetik gorako herritarrei deiak egiteko

bi txanda; Elikagai Bankuaren eligakaien banaketa antolatzeari; eta Gizarte Zerbitzuak indartzeko administrari bat kontratatzea. Gizarte larrialdietarako dirulaguntzak ere jaso dituzte, Eusko Jaurlaritzak bideratutako 30.000 euroekin; eta tasa eta prezio publikoak ordaintzeko ere, dirulaguntzak emango dituzte (20.000 euro).

Eta familia eta lanaren kontziliazioari dagokionez ere, hartuko ditu hainbat neurri, horretara 135.000 euro bideratuta, 400.000 euro horietatik aparte. Batetik, familien kontziliazioa errazteko zerbitzua eskainiko du, eta haurren zaintza nola egokitu ari da lantzen, udal-lekuak bere horretan egiterik izango ez dela eta. Eta bestetik, sektore feminizatuei laguntzeko eta enplegua sustatzeko dirulaguntzak emango ditu.

Establezimenduei laguntzeko eta ekonomia sustatzeko, dirulaguntzak eta bonuak Baina diru partida haundienak, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduei laguntzera bideratuko du Udalak, plan horretan.

Hasteko, dirulaguntza zuzenean emango dizkie, itxita egon diren edota fakturazioa %60 edo gehiago murriztu zaien establezimenduei. Horretarako 180.000 euro bideratu dituzte, eta laster argitaratuko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Horrela, batetik, honako kopuruak emango dizkiete, ordainketa bakarrek: taberna, jatetxe eta sagardotegiei 1.500 euro; landetxe, pentsio eta hotelei ere 1.500 euro; eta txikizkako merkataritza eta zerbitzu establezimenduei 800

euro. Eta bestetik, alokairua ordaintzen ari direnei, hilabeteko 300 euro emango dizkiete; eta lokalaren hipoteka ordaintzen ari direnei, hileko 100 euro.

Dirulaguntzekin batera, deskontu-bonuen bi kanpaina jarriko ditu martxan Udalak, ekainaren erdialdean eta udazkenean. Interneteko plataforman baten bitartez eskuratu beharko dira bonuak, %80a ordainduta: 10 euroko bonua erosi, eta 8 euro ordaindu, adibidez. 10, 20, 50 eta 100 euroko bonuak izango dira aukeran, eta horiekin, erosi ahal izango da ekimenean parte hartzen duten establezimenduetan. 85.000 euro bideratuko dira horretara.

Eta azkenik, terrazen tasak ez ordaintzeko, %100eko hobaria emango die taberna eta jatetxeei, 20.000 euro bideratuta.

Bizitza erdigunean jartzeko adierazpena, Arano eta Goizuetan

Leitza eta Aresorekin batera Gizarte zerbitzuen Mankomunitateak zabaldu du eta Goizuetako Plenoak bat egin du aste honetan.

GOIZUETA-ARANO BERDINTASUNA

Goizuetako Arano berditasun zerbitzuek bizitza erdigunean jartzen duen adierazpena kaleratu dute eta Goizuetako Udalak mezuarekin bat egin zuen astearteko Plenoan. Covid-19aren krisiak «agerian utzi du berriz ere mugimendu feministek eta berdintasunean aditu direnek aspalditik nabarmendu duten zerbait: zaintza-lanen krisi itzela bizi dugu; bizitzak ez daude erdigunean».

Adierazpenean ondorengo azpimarratzen dute besteak beste: «Etxeko eta zaintzako lanen banaketa oraindik ere ez da bidezkoa, ez dago benetako erantzunkidetasunik. Gaur egungo egoerak sexuaren arabera lan-banaketa eta genero-estereotipoak indartu ditu, emakumeek hartzen baituzte bere gain gehienetan haur, mendeko, zahar eta gaixoen zaintza-lanak, zaintza-emozionalarekin lotutakoak, zaintza-lan materialak eta abar. Lan horiek doan egiten dituzte familiaren esparruan, eta soldatapean izatekotan, lan- baldintza

oso prekarioetan eta lan- eta gizarte-eskubide gutxirekin. Eta, hala ere, gure gizarteak ongi funtzionatzeko funtsezkoak dira».

Funtzesko euskarria duten lanak bigarren mailakotzat

«Krisi honek feminizatutako lanbide horiei balio haundiagoa ematearen garrantzia azalera-tu du, lotuta baitaude bestelako diskriminazio-iturriekin, besteak beste, arraza, klase sozial edo adinarekin. Oraindik ere lan horiek bigarren mailakotzat jotzen dira, bizitzari eusteko funtsezko euskarri izan arren. Zaintza-zerbitzuak esparru publikoan nahiz osasun arloan, zaintzaileak zahar-egoitzetan eta etxez etxe, garbiketaren sektorea, supermerkatuetako langileak, gizarte zerbitzuak, hezkuntza... Lanbide horiek guztiek erakutsi dute funtsezko esparruak direla oinarritzko eta ezinbesteko premiak asetzeko bizitzek bizirik jarraituko badute».

Horregatik guztiagatik, «persona guztien arteko erantzunkidetasuna azpimarratu nahi dugu, emakumeek lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak egin

ez ditzaten zaintza-lanak eta etxeetako bizitza sostengatzearen ardura bere gain hartzeagatik. Sexuaren arabera lan-banaketa amaitu behar da, eta aurrera egin ordaindu gabeko lanen antolaketa bidezkoa lortzeko, zereginak eta zaintza-lanak modu eraginkorrean banatuz».

Beharrezkoa da familien, enpresen eta Estatuaren arteko erantzunkidetasuna ere egotea zaintza-lanen esparruak dakartzan alderdi guztiez arduratzean diote. «Beharrezkoa da agerian uztea emakumeek pandemia honetan duten garrantzia, haren ondorioei erantzuteko lehen leerroan baitaude, eta, alabaina, aitortza eskasa duten esparruetan».

Larrialdiak pasatzen dira, baina «ez bazaie horien eragin ezberdinei aurre egiten, bereizkeria are gehiago handituko da. Inork ezin dio bakarrik eutsi bere buruari, interdependenteak eta zaurgarriak gara, eta horregatik, zaintzarekin lotutako lanak funtsezkoak dira bizitzari eusteko. Krisi honek are ageriago uzten du zein garrantzitsua den bizitzak erdigunean jartzea eta paradigma aldatzea, bizitzak eta horien jasagarritasuna lehentasuna izan daitez» amaitzen du kaleratutako adierazpenak. **K**

Errelato motzen saria irabazi du Sainz de Murietak

HERNANI LITERATURA

Iñaki Sainz de Murietaren *Diente de León* idazlanarekin, I Concurso de Microrrelatos del Parque Nacional de Monfragüe sariaren irabazlea izan berri da. Errelato motzen lehiaketa da eta www.kronika.eus-en irakurri daiteke lan sariduna.

Doberaren udaleku ibiltariak aurten bertan behera geratu dira

HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Dobera Euskara Elkarteak erabaki zail bat hartu behar izan du, udaleku ibiltariak bertan behera geratzea. Covid-19ak sortutako egoeraren aurrean Dobera aukera posibleak aztertzen ibili da azken bi hilabeteetan, Hernaniko eta inguruko haur eta gazteei aisialdi-aukera txukun bat eskaintzeko asmoz. Ziurgabetasuna eta informazio-eza nagusi dira, ordea, eta «gure burua ataka larrian ikusi dugunez, ezinbestean eta tamalez», Dobera Euskara Elkarteak aurtengo udaleku ibiltariak bertan behera uztea erabaki du, egungo egoerarekin bideraezintzat jo dituelako. «Azken unera arte itxaron dugu eta ibili gara borrokan udalekuak egiteko. Halaber, jakinarazi behar dugu jada izena eman duten guztiei dirua berehala itzuliko zaiela. Dena dela, jakin Hernaniko Udalarekin eta Gazteria Sailarekin harremanetan gaudela, uda honetan Hernanin euskarazko aisialdi-eskaintza sortzen laguntzeko».

Posta bidez bozkatu daiteke dagoeneko

URUMEA HAUTESKUNDEAK

Uztailaren 12an Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak daude iragarrita eta dagoeneko posta bidez botoa tramitatu daiteke. EH Bildu eta PSE-EEK jarri dituzte bideak botoa emateko. PSE-EE alderdiak herriko etxeko bulegoa ireki du eta bertara joanda egin daiteke eskakizuna astelehenetik ostiralera. EH Bilduk dio posta bulego batean jaso eta erregistratu behar dela eskaria, gero dokumentazioa etxera irittziko da gutun ziurtatu bidez eta azkenik posta bulegoan eman behar da botoa. Uztailaren 2ra arte dago epea.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IV. urteurrena

Erika Macicior Marin

Ez utzi malkorik ezpainetara iristen, Irri hori lausotzen duen zauririk zabaltzen.

AITA, AMA ETA AIORA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 30ean


IV. URTEURRENA

Erika Macicior Marin

Zure irrifarrarekin geldituko gera, egun ilunak koloreztatuko.

OIHANA, NEREA, ESTHER, KORO, LAURA, MAIDER, AINHOA ETA FELI

Hernanin, 2020ko maiatzaren 30ean



Iñaki Sainz de Murietak literatur sariak irabazi eta lanak argitaratu ditu.

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Saltokietan eta ostalaritzan erostera animatzeko, bonuen kanpaina abian

'#eutsihernaniri' kanpainaren barruan, 50 euroko 10.000 bonu jarriko dira herritarren esku. 35 euro ordaindu eta 50 euroko erosketa egin ahalko du.

HERNANI UDALA

#eutsihernaniri erosketa txartelen kanpaina prest dago. Erosketa bonuen kanpaina bat da, herriko saltokietan, ostalaritza establezimenduetan eta zerbitzuetan erabiltzeko. 50 euroko 10.000 bonu jarriko ditu Udalak herritarren eskura. Kanpainan parte hartu nahi duen herritarrek 35 euro ordainduko ditu eta 50 euroko erosketa egin ahalko du. Beraz, Udalak 15 euro -bonuaren herena- hartuko du bere gain. Guztira, 150.000 euro bideratuko du Udalak ekimen honetara, eta tokiko ekonomian izango duen eragina 500.000 eurokoa izango da.

Ekonomiari dagokionez,

merkatariak eta ostalariak, bereziki, modu latzean ari dira krisiaren ondorioak jasaten. Kalte horiek arindu eta erosteko ohituretan eragiteko asmoz, zenbait neurri prestatu ditu Udalak. Horietako bat erosketa bonuen kanpaina da.

700 mila euro bideratuko dira fase desberdinetan

Kanpaina horrek zenbait fase izango ditu eta, guztira, 700.000 euro bideratuko ditu Udalak sektore horiek suspertze aldera. Ekimen horiek guztiak elkarlanean gauzatzeko ari dira Udala eta Berriak Hernaniko Merkatarien eta Ostalarien Elkarteak.

Lehen fasea #eutsihernaniri kanpaina da. Fase honetan

atera diren bonuak ekain osoan erabili ahalko dira -ekainaren 2tik aurrera eskura daitezke-. Bonuen kanpainak fase desberdinetan banatzea erabaki du Udalak horren helburua baita herritarrek dituzten erosteko ohituretan eragin eta herriko dendetan erostera bultzatzea.

Bonuak datorren asteartean egongo dira eskuragai: Berriak elkarteak eta Biteri kultur etxean. Herritar guztiak eros dezakete: helduek zein adingabeek. Erosketa bonuak txartelaren bidez edo banketxe-transferentziaren bidez ordain daitezke. Ez da eskudirurik onartuko.

Saltoki, taberna, jatetxe eta zerbitzuak ematen dituzten negozio guztiak har dezakete parte kanpainan, Berriak elkarteak kideak izan ala ez. Kanpainari atxikitzen zaizkion negozioek kartel adierazgarri bat izango dute haien erakuslehoetan. **K**

KZ Gunean zuzeneko hitzaldiek, jarraipena

Ekainean zehar beste bederatzik hitzaldi antolatuko dira, asteartean hasita.

HERNANI-ASTIGARRAGA KZ GUNEA

Maiatzean zuzeneko urrutiko hitzaldien zerbitzuak harreara ona izan ondoren, ekainean

zehar YouTube KZguneaTIC bidez zuzeneko hitzaldi berri batzuk egiteko asmoa dute, goizez zein arratsaldean, KZ Gunean. Zuzeneko hitzaldietara joateko, interesa duten pertsonen Inter-nererako konexioa baino ez dute behar, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita, ez da izenik eman behar alde aurretik. **K**

EGITARAUA

Ekainak 2, 11:00-12:00:

Murgildu errealitate birtual eta areagotuan. Euskaraz.

Ekainak 4, 18:00-19:00:

Ezagutu 3D inprimatzeak dituen aukerak. Gaztelaniaz.

Ekainak 9, 18:00-19:00: *Erosi etxetik irten gabe.* Euskaraz.

Ekainak 11, 11:00-12:00:

Zure diru-zorroa smartphonean. Gaztelaniaz

Ekainak 16, 11:00-12:00: *Zure*

ordenagailua biruz eta bestelako mehatxuetatik babestu. Euskaraz

Ekainak 18, 18:00-19:00:

Streaming plataformak ezagutu. Gaztelaniaz.

Ekainak 23, 18:00-19:00: *Android sekreturik gabe.* Euskaraz.

Ekainak 25, 11:00-12:00: *Azken gailu teknologikoak ezagutu.* Gaztelaniaz.

Ekainak 30, 18:00-19:00:

11:00-12:00: Zure smartphonea prest izan. Euskaraz.

IREKITA DAUDEN KOMERTZIOAK



LAKET TABERNA

LAKET Erribera plaza (DIaren ondoan) ASTIGARRAGA

Teléfonoa: 943 46 20 04

Giro atsegina eta terraza handia, gustora egoteko eta umeentzako parkea ondoan, mugitu gabe, haurrak zaindu ahal izateko.

JATEKOAK

Etxeko jana, bertan egina; hanburgesak, bokatak, oilasko errea, razioak... Dena bertan jateko edo eramateko, zure aukeran.

Zure zain gaude!

ILARGI TABERNA

ILARGI Edaniregia Latxunbe berri 36 behea HERNANI 602 66 50 58

ORDUTEGIA

Asteazken zehar 9:00-23:00
Aste bukaeran: 10:00-1:00

ESKAINTZAK

Pintxo potea ostegunetan: 19:00-21:00.
Paellak igandetan: 13:00-15:00.

TRANBIA TABERNA

TRANBIA TABERNA Marieluts 2, HERNANI 943 335 819

ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera 9:00-23:30
Larunbata-igandea 10:30-24:00

Ohiko kartarekin, tabernan jateko eta etxera eramateko aukera dago. Karta web orrialdean ikusi daiteke: www.bartrania.com.

TXINGURRI JATETXEA



Donostia ibilbidea 90, ASTIGARRAGA 943 33 60 49

ESKAINTZAK

Plater konbinatuak eta razioak, entsaladak, ogitartekoak, hanburgesak eta sandwichak.

Astelehenetik-Larunbat eguerdira: Eguneko menua.

Larunbatak, Igandek eta jaiegunak: Oilasko erreta patata eta letxugarekin.

Bertan jateko baita eramateko ere.

EKAITZ TABERNA



943 45 93 71
Tomas Alba, 9
ASTIGARRAGA


ORDUTEGIA
11:00 - 00:00

ESKAINTZAK

Eguneko menua (asteazken zehar), plater konbinatuak, ratio eskaintza zabala (zanburinak, muskuiluak tomate pikantearekin, tripakiak, karrilerak, barraskiloak...), hanburgesak, hanburgesa begetala, sartagiak, entsaladak, bokatak eta etxeko pizzak.

Sukaldeko ordutegia, 12:30 - 15:30 / 19:30 - 22:30

TXOKO TABERNA



Andre Kale 68
HERNANI
943 50 62 23

ORDUTEGIA
Astelehenetik

ostegunera: 7:00-22:00

Ostirala: 7:00-23:00

Larunbata: 8:00-23:00

Igandek eta jai egunak: Itxita

Etxera eramateko tortila tamaina berriak ditugu, deitu eta galdetu.

BI HERRIAK



Akarregi poligonoa 1, HERNANI 943 33 20 31

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 6:30 - 23:00
Larunbatak: 9:00 - 23:30
Igandek: 9:00 - 16:30

ESKAINTZAK

Eguneko menua eskaintzen dugu aste eguneko bazkarietan eta gauetan karta (razioak, entsaladak, hanburgesak, ogitartekoak eta plater konbinatuak). Eskaera guztia etxera eramateko eta bertan gozatzeko aukera ere eskaintzen dugu.

GUERE K2A



Zubiondo poligonoa B2-2, Rugby zelaitik gertu. HERNANI 943 53 51 36

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera 6:30 - 16:00
Larunbatak 10:00 - 16:00

ESKAINTZAK

Eguneko menua astelehenetik larunbatera 11,30€ bez barne, pintxo eta bokata edo plater konbinatuak ere baditugu eta sukaldea irekia, irekitzen dugunetik itxi arte. Eramateko dena prestatu dezakegu eta oilasko errea ere badugu eramateko 9,90€ tan bez barne. Aldez aurretik eskatzea hobe izaten da. Eskariak egiteko telefonoa 943 53 51 36 (whatsappez).

IRRINTZI TABERNA



Ereñotzu bailara, 3 656 37 42 58

Berriro Martxan!

IRUBIDE JATETXEA

HELBIDEA
Epele auzoa 7,
HERNANI

TELEFONOA
943 55 24 80
667 208 702

EUSKALDUNA TABERNA

Nafar kalea 23
HERNANI
679 72 67 20

ORDUTEGIA
9:30 - 23:00
MARTXAN GAUDE!

ISABEL JANARI DENDA

Tomas Alba 11,
Astigarraga
Arratsaldez
itxita.

Zerbait behar
baduzu:
isamendioroz@
gmail.com
943 55 23 67

BIOK ILEAPAINDEGIA

Elkano kalea, 18
943 333 032 / 688 660 415

Norbanakoari egokitutako lanak,
azkartasuna eta erabateko garbi-
tasuna.

Mozketa eta moldeatu lanez gain,

aukeran dituzu:

- 10 minutuko kolorea
- Betiko kolorea: teknika desberdinak
- Kolore organikoa
- Kolore bainua

ORDUTEGIA:

- * Astelehenetik asteazkenara 08:30-12:30 eta 15:00-19:00.
- * Ostegun eta ostiralean 08:30-18:00.
- * Larunbatetan 08:30-13:00.

ADATS ILEAPAINDEGIA

Nafar kalea 14, Hernani

Egoera berri hau dela eta, lan egiteko genuen modua erabat aldatu beharko dugu.

Hemendik aurrera, ileapainde-
gira etortzeko txandak, hitzor-
du bidez antolatuko ditugu.

Horretarako, bi telefono ditugu: WhatsApp ☎: 688 849 059

Ileapaindegiko telefono fijoia 943 33 24 41

KRISTINA-ANABEL ILEAPAINDEGIA-ESTETIKA

Elkano 18,
Hernani
943 556
751 /

☎ 664 336 982

Zure irudia aldatzen laguntzen
zaitugu. Ile mozketa pertsonali-
zatuak. Depilazioak, manikurak,
pedikurak, makillajeak, aurpegiko
eta gorputzeko tratamenduak,
erradiofrequentzia, vacuum, lipola-
ser, solariuma. Hartu hitzordua.

AMETSA ILEAPAINDEGIA

ametsa
ileapaindegia

Antziola
13 behea,
Hernani
943 33 68 49 / 603 413 083

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 9:00-
19:00. Larunbatak: 8:00-14:00

ESKAINTZAK

Familiako guztiontzako, koloreak,
kolore beganoak, metxak, (ba-
layage, kaliforniana...), keratina
(85€). Maskarilla beharrezkoa.

KIMU ILEAPAINDEGI MIXTOA

Izpizua kalea 1
Hernani
943 55 15 44

Gogoratu
joan aurretik
hitzordua
hartzea.

SARAH GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA

Larramendi 1
behea, Hernani.
Telefona
667 557 630

ORDUTEGIA
9:30-13:00
17:00-20:00

IRAOLA HORTZ KLINIKA

Helbidea:
Andreka Kalea 50 - 1D

Telefona:
943 55 44 55

ORDUTEGIA

10:00-14:00

Ekainaren 1etik aurrera 10:00 - 18:00, astelehenetik ostiralera.

ASTIGARRAGA HORTZ KLINIKA

Pelotari kalea 17,
Astigarraga

Telefona
943 33 00 89
☎ 688 68 68 17

ORDUTEGIA

Astelehenetik asteazkenara 14:30-20:30 / ostegun-ostirala 8:30-14:30

ODONTOLOGIA OROKORRA / HAURRENTZAKO PADI ZERBITZUA

EROSKI ASTIGARRAGA

943 556519.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostirala 9:00-
20:00. Larunbatean 9:00- 14:00.

Arraindegian whatsapp bidez
enkarguak egin ahalko zaizkio
Maikari larunbat honatik aurrera.
☎ 659 361 408

IKUSI-MAKUSI JOSTAILUAK OPARI DENDA

Kale nagusia 7

Telefona 843 630 469

☎ 634 607 099

📷 📱 Ikusi Makusi Hernani

ORDUTEGIA

- * Goizez, 10.00-13.00
- * Arratsaldez, 17.00-19.30
- * Larunbata, 10.00-13.30

TALLERES JUANTXO

Andreka 60 (Atzietas), HERNANI
943 25 66 08
tallerjuantxo@gmail.com

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostirala 9:00-
13:00 / 15:00-19:00.
Larunbatetan 10:00-13:00

Diagnosi unibertsala.

Neumatikoetan aukera zabala.

Aire girotuaren karga eta konponketa.

Suspentsioak, balazatak.

Olio aldaketak. Mekanika orokorra.

DAGO MOTOR

Akarregi 2B,
Hernani
943 33 06 65

ORDUTEGIA
8:30 - 19:00

Ozono makina
bati esker zure

kotxea guztiz
desinfektatuta
jasoko duzu.

4 urte ireki ge-
nuenetik! Mila
esker bezero
guztiei.

TTILIN-TTOLON

Txirrita 10, Hernani
943 55 56 94

ORDUTEGIA

Goizean 8:45-13:30
Arratsaldean 16:30-20:00
Larunbatean 9:00-13:30

Jakinarazten dizuegu kontsultak martxan daudela osasun neurri guztiak hartuta.

Animo denei eta bereziki ondoezik zaudetenei!

Eskerrik asko egoera berezi honetan arduraz jokatzearatik.

AMANE

Urbieta kalea 7

943389420 / 688773754

ORDUTEGIA:

Astelehetik ostirala 9:00-13:30 /
16:30-19:30.

Launbatetan: 9:00-13:30

ESKAINTZAK

Laister martxan jarriko ditugu berri-
ro ere honako kontsultak:

- Naturopata (intolerantzia test-a
eta iridiologia)

- Nutrizionista (Lab. Nutergia)

- Biomagnetista (imanak eta kara-
melo bidezko exfoliazioa)

- Depilazio laserra (diodo)

Hauetaz gain, honako zerbitzu
hauek ere eskaintzen ditugu:

- Gluten eta esneki gabeko ogia
(asteazkenetan).

- Sasoiko barazki ekologikoak
(Balantxa Baserritik ekarriak).

COVID-19 dela eta, beharrezkoak
diren kasuetan erosketak etxera
eramaten ditugu. Telefonoz edo
WhatsApp bidez, zuen eskaera
egin dezakezue.

Animo eta denen artean lortuko
dugu! Besarkada bat.

JAIONE KONGELATUAK

Kale nagusia 40, Hernani

943 55 07 87
635 701 436

ORDUTEGIA
09:00-13:30

OREKAN

Agustin-darren plaza 1, Hernani

Telefona: 943550846


665 147 267

ORDUTEGIA
9:30-13:30

PINEDA

Andrekale kalea, 32
Hernani
943 55 16 43

ORDUTEGIA
8:00 - 13:30

LOPEZ PENTSUAK

Elkano kalea 13 behea
Hernani

TELEFONOA:
943 55 02 30

ORDUTEGIA
8:30 - 13:30 eta 17:00 - 19:00

ESKAITZA
Ongarriak, haziak, fitosanitarioak, pentsuak, ardoak, patatak, leakeak, fruitu lehorrak, kontserbak...

EZKERRO

Erkero
Fruituak

Antziola, 5

943 57 48 31 / 688 885 733

ORDUTEGIA
07:30-13:00/ 17:00-19:00

Irekita jarraitzen dugu, enkarguak jaso eta prestatzen ditugu.

LIZEAGA SAGARDOTEGIA

www.lizeaga.eus
943 46 82 90

ESKAITZA
DAGOENKO ZABALIK, EGIZU ZURE ERRESERBA.

BIDE ARIN

Txirrita 13,
Hernani
943 33 21 70

ORDUTEGIA
Astl.-ostiralera
16:30-20:30
Larunbatetan
10:00-13:30

Egoera hau dendan al-daketa txiki batzuk egiteko erabili dugu. Deskontuak badauzkagu eta material berria.

ETXERA ERAMATEN DUTENAK

**EUSKAL-PIZZA**

Larramendi 3, Hernani
943 33 33 73

ESKAITZAK
Pizza ertaina + 3 osagarri + saltsa aukeran + hanburgesa osoa: **16,95 €**.
2 x 1 etxera eramanda ere bai.

OTSAIHEN

ESKAITZA
24 botilako kaxak: 50€

Nahieran egin ditzakezu kaxako nahasketak: Horia, IPA eta beltza
Bidalketak etxera, Gipuzkoa osoan

Eskaerak egiteko: otsaihen@gmail.com 623 229 297

GURUTZETA SAGARDOTEGIA

943 55 22 42

ESKAITZA

SAGARDOA ETXERAINO ERAMANGO DIZUGU

HIRU SAGARDO MOTA ESKAINTZEN DIZKIZUGU

Gurutzeta Gorenak (Lepoko beltza). Ezaugarriak: suabea, usain freskoa nabarmentzen zaiona, poteatzeko aproposa.

Gurutzeta Euskal Sagardoa (Lepoko gorria). Ezaugarriak: Bertako sagarra, tradizioz jantzia eta sendoa. Arrain nahiz haragiekin ongi uztartzen dena.

Gurutzeta Euskal Sagardoa Bio

(Lepoko berdea). Ezaugarriak: Sagasti ekologikotik datorrena, Segurako Munjardin baserri hain zuzen ere. Fruitu kutsu handia duena eta orekatua, errexil sagarraren eragina. Jaki guztiekin ongi sartzen dena.

6 eta 12ko kaxetan salgai.

Eraz eros dezakezu honoko telefonoa erabiliz: **943 55 22 42**

Gure web orria erabiliz ere bai: www.gurutzeta.com

ALTZUETA SAGARDOTEGIA

HELBIDEA: Osinaga 7, Hernani
TELEFONOA: 943 55 15 02

ESKAITZA
Nahi izanez gero, EUSKAL SAGARDOA ere etxera eramaten dugu.

LARRE-GAIN SAGARDOTEGIA

Ereñotzu Auzoa 20120
Hernani
943 55 58 46 / 607 429 102

ESKAITZA
Etxera eramango dizuegu sagardoa. Egin eskaera!

PETRITEGI SAGARDOTEGIA

HELBIDEA:
Petritegi bidea,
8 Astigarraga

TELEFONOA:
687522734

EMAILA: petrietxea@petritegi.com

ORDUTEGIA:
Eskaerak egiteko: 10-13 eta 15-18
Eskura ematea: 13-15 eta 20-22 (Momentuz Astigarraga eta Martutenen soilik)

ESKAITZA
Sagardotegia etxera. Dastatze menua bi lagunentzat: Txorizoa sagardotan, bakailao-tortillarako osagaiak (arrautzak ezik), entsalada berdea, legatza parrilan, etxeko mamia eta sagardo edo sagar zuku botila. Nahi izanez gero **menua zure erara osatzeko aukera:** legatza, Txuleta, txistorra, gazta. irasagarra... Aukera guztiak www.petritegi.eus-en (Asteartetik aurrera sagardotegian jasotzeko aukera).

ITXAS-BURU SAGARDOTEGIA

Osiñaga Auzoa 20120
Hernani

684360903

ESKAITZA
Etxera gerturatzen dugu Sagardo Arrunta eta Euskal Sagardoa J.D.

GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA

Ereñotzu auzoa, Hernani
620 783 529

ESKAITZA
Etxera ere eramaten dugu sagardoa.

Zure komertzioa iragarri nahi baduzu, jarri harremanetan:

> publi@kronika.eus
> 688 660 714

«Erremonteak aldaketak behar baditu, orain da garaia aldaketa horiek egiteko eta horiei eusteko»

Oriamendi enpresa ETBrekin akordio batera iritsi berri da ekainaren 20an edo 27an txapelketa berri bat hasteko. Joxemari Barrenetxeak akordio horren xehetasunak azaltzen ditu.

HERNANI ERREMONTA

Erremontea izan zen azkena martxoaren 14an aktibitatea mozten eta jarduerara itzultzeko egutegia egin duen lehen pelota modalitatea ere izan da. Horretara iristeko, aurretik Oriamendi2010 enpresak etorkizuna argitzen duen akordioa sinatu zuen Euskal Telebistarekin. Akordio hori nolakoa izan den Joxe Mari Barrenetxeak argitu eta urte amaiera arte erremontea zer bidetik joango den azaltzen du.

«Sei bikotek parte hartuko dute, erremontista onenekin. Ikuskizuna orekatua izan dadin saiaturako gara. Bost larunbatetan izango da, eta jaialdi bakoitzeko bi partida jokatu dira. Ligaxka bat egongo da eta finala uztailearen 18an edo 25ean izango da, noiz hasiko garen kontuan hartuta». Txapelketak oranidik ez du izenik, baina 50garren urteurrenarekin lotuta izango dela dio Barrenetxeak. «Oraingoz, ez du izenik. Baina lotura izan dezake frontoiaren 50. urteurrenarekin, ekainaren 13an ospatzekoa baitzen, efemeridea betetzen zen egunean. Ezin izango da egun hori izan, baina keinu bat egin diezaiokegu urteurrenari».

Nondik sortu zen ideia ere azaltzen du arduradun herna- niarrak. «Jarduera gelditzean,



Aktibitatea bertan behera geratu zen unean, Sagardoaren Txapelketa aurkeztu berri zen egun batzuk aurretik.

ikusitua genuen ETBk partida zahar- rren bildumak aukeratu zituela larunbat eta igande arratsaldean pelotari eskaintzen dizkion ordu tartekak betetzeko. Pentsatu genuen interesatzen zitzaiela emankizunei lehenbailehen ber- rrekitzea, eta, horregatik, duela hilabete inguru, Joseba Urkiola kateko kirol-buruari deitu genion telefonoz, zuzenean erremontea egiteko prest gaudela planteatzeko, atak itxita izan arren, deskonfinamendu arauak horiek antolatzeko aukera ematen digutenean. ET- Bren aldetik interesa nabaritu genuen eta akordio bat pausoz pauso betetzen joan ginen».

«Erremontistek lau aste behar dituzte prestatzeko»

Aktibitatea berriz hasteko bal-

dintza batzuk bete behar dira eta horien artean pelotarien prestakuntza aipatzea ezinbestekoa da. Entrenamenduetara itzultzea izan da lehenengo egin beharra. Pelotariak prest jartzeko lau asteko entrenamendua behar dituztela azpimarratzen dute. «Hori izan zen gure eskakizun bakarra. Gainerakoan, jakinarazi genien prest geundela nahi zuten larunbatean edo igandean, egunean eta orduan jokatzeko. Hori bai, asteburua izan behar zuen, gure pelotarien lan betebeharren ondorioz».

Euskal Telebistak berak esan zuen larunbatetarako erremontea interesatzen zitzaiola, arratsaldeko lauretatik seietara bitarteko tartean. «Nolanahi ere, azken bileran adierazi ziguten hiru eta erdietan hasteko auke-

ra zegoela, ohi baino 30 minutu lehenago. Arazorik ez gure alde- tik».

«Hasieran ikuslerik gabe jokatzeko prest gaude»

Jarduerara itzultzeko data ere ezarri zuten Oriamendi eta ET- Bren arteko akordioan. «Ekainaren 20an edo 27an izango da, bi larunbat horietako batean. Deseskaladaren faseek partidak pelotaleku batean muntatzeko aukera ematen badigute, ikusle- rik gabe bada ere».

Oriamedik nahiago du atak irekita ekitea aktibitateari, bai- na atak itxita egin behar bada ez die axola edo aurrera jarraitu- tuko luke. «Prest gaude. Fron- toian ikuslerik ez badago, bi partida emango ditugu, biak torneoari dagozkionak. Jendea

sar badaiteke, nahiz eta murriz- ketak izan, hirugarren partidu bat antolatuko dugu. Hori ez li- tzateke telebistakoa izango».

Erremontean eta Galarretan tradizioa da ostegunetako jai- aldia. Jende gehiena biltzen duen eguna da eta erremontearantzat gordeta dagoen asteko eguna. «Oraingoz bertan behera geratzen da ostegunetako jaialdia, zain aurrera begira. Oraingoz, larunbatetan jarriko dugu arreta. Gertaeren garapenak berak markatuko digu ostegunetan zer egin dezakegun. Agian abuz- tuan».

Abuztua izaten da urteko hilabete garrantzitsua eta jenderik gehiena biltzen den garaia. Banakako txapelketa nagusiarekin hurbiltzen dira zaletu gehien. Egundorietan

«Sei bikotek parte hartuko dute eta bost larunbatetan jokatu da jaialdi bakoitzean txapelketako bi partida jokatu direlarik. Ligaxka egongo da eta finala uztailearen 18an eta uztailearen 25ean».



Urte amaiera arte partidu ederrak ikusteko aukera egongo da.

«Urte amaierara arte 32 eta 35 jaialdi artean programatuko ditugu, pozik gaude eta berriro hasteko modua aurkitu dugu. Martxoan esan genien peloteriei ez guela ixten eta norabide horretan egin dugu lan»

«Oraingoz hasiko gara larunbatetan eta bertan behera ostegunetako jaialdia geratzen da. Eboluzioak esango digu noiz hasi gaitzkeen ostegunetan jokatzeko»

iritsiko da banakako txapelketa eta aurten ere jokatzeko intenzioa dago. «Parte hartu nahi duten erremontista guztiei irekiko diegu. Gainera, pilotari bakoitzak gutxienez hiru partida jokatu ahal izateko formula bat zehaztu nahi dugu. Kanporaketan ondorioz, batzuk lehenengo partiduan kaleratzen dira eta gure pelotariak jokatu eta lehiatu nahi izaten dute. Guk horretarako baliabideak eman behar dizkiegu. Iaz, adibidez, bigarren mailako indibidual bat eskatu ziguten, txapelduna edizio horretan bertan lehen mailara igotzearen sariarekin».

Banakakoaren azken fasean lau erremontisten ligaxka, horien artean Urriza eta Barrenetxea izako finalistak

Partidu kopurua haunditzea suposatuko luke horrek eta hori nahi dutela dio Joxemari Barrenetxeak. «Horren bila bagoaz, ostegunetara joko genuke, edo uztaila amaieran hasi, abuztura arte itxaron gabe. Argi daukagu azken fasea lau erremontistako ligaxka bat izango dela, eta Barrenetxea IV.a eta Urriza 2019ko finalistak eta aurreko txandetatik etorritako beste bi egongo liratekeela. Denbora dago diseinatzen. Pelotazalearentzat interesgarria den zerbait sortu nahi dugu, gure pelotariak ilusioa eragiten diena».

Finala ohiko lehendabiziko edo bigarren larunbatetik mugituko litzateke. «Hori da Euskal Telebistarekin hitz egin dugun gaietako bat. Egoera berrian, ez gara udari hain lotuta sentitzen, eta banakako txapelketako finala irailera aldatuko da. ETBren esku utzi dugu irailaren 19tik 26ra bitartean aukeratzea. Frantziako Tourraren edo Italiako Giroaren emanaldiarekin bat egingo duela esan digute, eta horrek ordutegian ere eragina izango duela. Dena den, laurak eta seiak bitartean izango zen».

Eta urte amaiera aldera Binakakoaren txanda etorriko da. «Saillapen-atariko bat sartuko dugu, bai aurrelariatzat, bai atzelariatzat».

«Banakakoaren finala irailaren 19an edo 26an atzeratuko dugu partidu kopurua haundituko delako. Binakako txapelketarako saillapen fase bat egongo da aurrelari eta atzelariarekin».

«Aldaketen garaia da eta telebistaren beharra dugu»

Aldaketa garaiak aukera garaiak ere izaten omen dira. Oriamendin argi dute orain dela uneko aldaketak egiteko. «Egoera hau delikatu da, baina askatasuna ere ematen digu. Erremontek aldaketak behar baditu, horiei aurre egiteko unea da. Gure betiko bezeroak bere ohiturak ditu, baina argi dago telebistaren beharra dugula. Oriamendi eta gure balizko publikoak egokitu beharko dugu Euskal Telebistara».

Urte amaitu baino lehen hamabost partidu inguru eskainiko ditu ETBk

Hainbat erremonte partidu emango ditu ETBk urte amaitu arte, hamabost inguru Oriamendiko arduradunen esanetan. «Orain martxan jarriko den Binakako txapelketa honen hamar partidu, banakako txapelketako bi eta binakako txapelketako beste bi, finalak barne. Gainera, ETBn ere izango dira ikusgai, erremontearen presentziaren ikuspegitik guretzat eta babesleentzat oso garrantzitsua den detailea».

Dena normaltasunez badao eta jendea bertara sar badaiteke, jaialdiak astean bi egunetan eman nahi dituzte, ostegun eta larunbatean. «32 eta 35 jaialdi bitartean programatu ditugu ekainetik urte amaitu arte. Pozik gaude eta berriro hasteko modua aurkitu dugu. Eutsi besterik ez egiteko dinamika horretatik atera ginen. Alarma-egoeragatik pilotariak kontratuak ez berritzea erabaki genuenean, jakinarazi genien itzuli egin nahi genuela, ez genuela ixten, eta norabide horretan lan egin dugu».

Pelotariak berehala sinatuko dituzte euren kontratuak martxoan eten eta gero. «Erremontisten gehiengoak datorren asteko epean lotu nahi dugu. Badakigu horietako batzuk Nafarroan martxan jarri nahi duten proiektu berriaren alde daudela. Guk Galarretan erremontean jokatu nahi dutenak ditugu». **K**

«Gehien kontratuak datorren astean lotu nahi ditugu. Badakigu batzuk Nafarroan martxan jarri nahi duten proiektuaren alde daudela. Guk Galarretan erremontean jokatu nahi dutenak ditugu»



Urrizarekin egin zen bezala beste modalitate batzuetako pelotariak erremontean jokatzera bultzatu nahi dira.

«Errendimendu altuko pelotariatzat zabaldu nahi dugu erremontea»

Endika Barrenetxeak adierazi du beste modalitateko zazpi-zortzi pelotariari proposatuko dietela erremontean hastea kontratua ziurtatuz.

HERNANI ERREMONTA

Galarretako erremonte eskola ere geldirik egon da mrtxotik, baina ekainaren 8an berriz irekitzeko asmoa dute. Endika Barrenetxea eskolaren arduradunetako bat da eta bi berri garrantzitsu azpimarratu nahi ditu aurrera begira. Alde batetik, «hernaniarreki gehiago hurbildu nahi diegu erremonte eskola» eta bestetik «eskolari gehitu nahi diegu errendimendu altuko sekzio bat».

Idea hori zer den eta nondik doan azaltzen du Endikak. «Apustu bat egin nahi dugu pelotako beste modalitateetako maila altuko zazpi-zortzi pelotariarekin. Baliabide eta erraztasun guztiak jarriko dizkiegu eta intendentea, Kike Elizalde, izango litzateke talde horren buru eta erremontean jokatzeko erakutsiko liekena».

Bere garaian Javier Urrizarekin egin zena errepikatu nahi da, baina oraingoan pelotari gehiagorekin. Urriza palatik zetorren eta Kikerekin erremontean prestatzen hasi zen. «Munduko txapeldun zen palan eta entrenatzaile onenarekin jarri zitzaion erremontean eta apustu bat egin zen. Denbora, materialean inbertsioa egin zen eta urte betera kontratua jarriko zitzaioela mahai gainean esan zitzaion. Orain ere hori egin nahi da denbora gehiagorekin eta pelotari

gehiagorekin».

Pelota eskola indartu nahi dute eta era berean apustua egingo dute kirolari zehatz batzuekin, oraindik ere zeintzuk izango diren erabakitzeko dago, pelotako beste modalitateetatik etorriko direnak. «Kontratu bat jarriko zaie mahai gainean eta futboleko edo esku pelotaren egiten den bezala baliabide guztiak jarriko dizkiegu gurekin entrenatzeko bai fisiko eta bai erremonte mailan, denbora bat pasa eta gero profesionalentzat debutatzeko». Oraingoan lotzen ari dira xehetasunak eta ez dago epe bat jarrita lan horretan hasteko.

«Erremonte eskolan ere hernaniarrekin apustu berezi bat egin nahi dugu»

Errendimendu altuko pelotariaren edo sekzio bereziaren ideia horrek ez du eskola pelotaren jarduerara moztuko. Pelota eskola ere indartu nahi da. «Mantenduko dugu betiko erremonte eskola pelotari gazteekin. 16-17 urteko gazteak daude eta horiek patxada gehiagorekin denbora daukate entrenatzeko, ikasteko... pixkanaka hobetzeko. Aukera dago edozeinek probatu nahi badu erremontea Galarretara etorri eta eskolan hasteko».

Hauek bai hastear daude ia hiru hilabete geldirik egon eta gero. «Afizionatuak hasi zaizkigu deika entrenatzen hasi nahi

duela esanez. Berehala hasiko gara, seguruenik hurrengo fasean, hirugarrenera pasatzen geranean, hau da, ekainaren 8an. Kontu haundiarekin hasiko gara. Eskolan apuntatzeko aukera egongo da denentzako».

Erremonte eskolan bada biltza momentu honetan erremontista hernaniarrekin eta oraindik eta gehiago egotea gustatuko litzateke. «Hernaniko gazteak etortzea eta erremontea probatzera animatu nahi nituzke».

San Joanen bueltan hernaniarreki eskaini nahi die irekiera

Galarreta Hernaniaren ikur bat ere bihurtu da azken 50 urtetan eta Hernaniarekin lotura oraindik gehiago estutu nahi du, baita pelota eskolan ere. «Apustu berezi bat egin nahi da Hernaniko herritarrekin. Bertakoak gara eta bertako jendearekin gauzak landu behar dira».

Hernaniarekin gauza desberdinak lantzea nahi du Oriamendik. «Denen artean, komunikabideak, instituzioak, gu... elkarlana beharrezkoa da. Irekiera berri honetan ekainaren 20an edo 27an zabaldu nahi dira ateak, San Joanen bueltan. Herriari eskaini nahi diegu irekiera hori. Hernaniarrentzako momentua da, erremontea ezagutzeko aukera eta herria inplikatzen aitzakia ezin hobe iruditzen zaigu».

«Lan haundia da egunero 2.000 razio egitea, baina laguntzeko dela jakiteak pozten gaitu»

Koronabirusak ekarritako egoera honen aurrean, Jakioro proiektua jarri zuten martxan apirila erdialdera, Diametro 200, HAZI, Gurutze Gorria, eta Oronak, eta jada 20.000 plater banatu dituzte, behar dutenei elikadura osasuntsua eskainiz.

URUMEA LANEAN

Fede Pacha Goikoetxea, Diametro 200eko gerentea da, eta Orona, HAZI eta Gurutze Gorriarekin egin du bat Jakioro proiektuan. Jada 20.000 plater banatu dituzte, egunero 2.000 razio eramenez, etxe, jantoki sozial edo elikagai bankuetara, tabernetako barazkiei irtenbide bat emateko asmoarekin, eta behar duten haiei kalitatezko elikadura osasuntsu bat emateko xedearekin. Horrela jarraitzeko asmoa daukate, urrira arte, nahiz eta alarma egoera amaitu. Beharra daukatenak elikatzen jarraituko dutela jakinarazi du Pachak, eta proiektuaren nondik-norakoak kontatu dizkio Kronikari.

Kontatu apur bat, nola hasi zen Jakioro proiektua eta zertan oinarritzen den.

Koronabirusa dela eta, taberna eta jatetxeak ixten diren momentuan, berdurak, barazkiak... bildu eta zakarrontzira doaz. Hori dela eta, HAZI nirekin jarri zen kontaktuan, Diametro 200ekin alegia, hemen dauzkagun instalazioak eta eskaintzen dugun zerbitzua direla eta. Azken batean, *katering* zerbitzua daukagu, osasungintzako baimenak daukagu... Eta gainera, duela dezentetik, guk produktu lokal eta ingurukoekin egiten dugu lan. Orduan, HAZIkoek galdetu ziguten, ea zein irtenbide emango geniekeen barazki eta berdurei. Eta hortik dator ideia; azkenean, irtenbide solidario bat eman diogu. Hala ere, HAZIri hasieratik esan genion, Oronari baimena eskatu behar zitziola.

Beraz HAZI, Oronarekin elkartu zen, hitzarmen bat egin zuten beraien artean, kolaborazio moduko hitzarmen bat, eta momentu horretan jarri zen martxan Jakioro proiektua. Jakioron, HAZIko generoa jartzen du, Oronak instalazioak jartzen ditu, Diametro 200ek sukaldatu, eta Gurutze Gorriaren eginkizuna da banaketa. Niri hona, mota guztietako produktuak ekartzen dizkirate, barazkiak gehienbat. Hori horrela, barazkiz egindako krema bat egiten dugu, eta horrez gain, potajea, garbantzuak eta babarrunak ere bai.

Gure asmoa zen, menu bat oparitzea, hiru plateraz osatu-



Egunero, 2.000 menu prestatzen dituzte, behar duten horiei elikadura osasungarria eskaintzeko asmotan.

tako menu bat: lehenengo platera, bigarrena, eta hirugarren bat. Baina, hori bai, inguruko eta Euskal Herriko produktuez egindakoa, orekatua eta osasuntsua. Eta horrela osatu dugu, hiru plateroko menua, lehenengo barazkiz egindako krema, bigarrena Arabako garbatzu edo babarrunak, eta postrea, kiwi eta sagarrarekin ari gara egiten. Hauekin purearen antzerako plater bat egin dugu, eta gainera bizkotxo moduko bat jarri diogu. Beraz, esan daiteke, hiru plater dituen menu oso bat eskaintzen dugula, solidarioa. Menu hau oparitu edo eskaini egin nahi genien, behar zuten horiei, baina menu goxoa izatea zen gure nahia, eta lortu dugu. Guk, produkzioa egiten dugu, etiketak jartzen dizkiegu pakeetei... Nahiz eta menu solidario bat izan, etiketetan zein osagairekin egin den jartzen dugu, zein balore nutritibo dituen ere bai, kaduzidade data... Nolabaiteko gertutasun bat emateko, elikagai hauek jango dituenari. Jasotakoa, kalitatezkoa dela ikusteko egiten dugu lan guzti hau. Gainera, esan beharra dut, elikagaiak sartzen ditugun ontziak, konpostagarriak eta bio-

degradagarriak direla; beraz, tira, ingurumenean ere pentsatu dugu!

Nola egiten duzue lan inguruko baserriekin? Beraiek jartzen dira zuekin kontaktuan?

Egia esan, HAZIko egiten du hori. Izan ere, HAZIko, plataforma bat dauka bere baitan, eta bertan, Jakioro proiektuaz jarduten du; hor baserriek izena eman behar dute parte hartzeko asmoa baldin badaukate. Guk, egia esan, ez dakigu zein baserrietatik iristen zaigun generoa; guk generoa jasotzen dugu eta genero horrekin egiten dugu lan. Karabelekoren elikagai eta generoak direnean badakit, oso harreman estua baitaukat haiekin, baina gainontzeak ez dakizkit. Hori bai, oso genero ona ekartzen dute. Jasotzen dugu dagoena, eta dagoen horrekin menua moldatzen dugu, esan bezala, barazki krema eta abar. Guk hori eskaini genezake, eta sukaldatzen dugun janaria oso goxoa da. Goxoa egoteaz gain, lehen aipatutakoa, paketeak, pegatinak, informazioa... Dena gertukoa dela jakinarazteko da. Gustatu egiten zaigu askotan

zer jaten dugun jakitea eta informatzea ea osasuntsua den, elikagai nutritiboak dituen...

Hilabete daramakigu jada honekin, eta hobetzen joan gara, baina hasieratik egin ditugun gauzak, kalitatezkoak eta goxoak izan dira. Ez ditugu pare bat plater simple egin argazki bat egiteko, eta jendeak ikusteko zein proiektu ari garen egiten, ez. Seriotasunarekin hartu dugu, eta dena gertukoa eta kalitatezkoa da, eskaintzen duguna. Gainera, hasieratik pentsatu genuen ideia ona zela, eta beharrezkoa. Izan ere, jendea benetan gaizki dago ekonomikoki, Koronabirusak eragindako egoera dela eta. Josu Garaialde HAZIko teknikaria, Iñigo Marquet Orona Fundazioko zuzendaria, eta hirurok, duela hilabete hasi ginen proiektu honekin. Aipatu moduan, uste genuen beharrezkoa zela, eta gainera proposatu genuen ondo egitea gauzak; hau da, maitasunarekin egiten dugu. Azkenean, bizi dugun egoera honen aurrean, askok nahikoa daukate daukatenarekin.

Nola sortu zen behar dutenekin kontaktua? Beraiek

zuekin kontaktatzen zuten, edo alderantziz?

Proiektuaren hasieran, HAZI Gurutze Gorriarekin jarri zen kontaktuan, eta behar dutengana heltzen gara, Gurutze Gorriaren bidez. Haiek erabakitzen dute nora eta norengana eraman janaria, adibidez, bakarrik bizi den jenderentzat. Lan guzti hau Gurutze Gorriarekin egiten du, eta oso lan potenteta da, beraiek baitaukate zehaztuta nori eman, eta banaketa ere beraien esku dago. Eta hiru probintzietako Gurutze Gorria dago proiektu honetan, Gipuzkoakoa, Bizkaiakoa eta Arabakoa.

2.000 razio egiten ditugu egunero; zama haundiko lana da, baina besteei laguntzeko dela pentsatzeak poztu egiten gaitu. Eta gainera, proiektua ondo doa, bide onetik.

20.000 plater banatu dituzue jadanik. Hala zeneukaten aurreikusita?

Bai, 20.000 izan dira orain arte banatu ditugun platerak, baina espero genuen. Aurreko batean, adibidez, Gipuzkoako Gurutze Gorriko kideak esan zidan, ezin didazu janari gehiago eman? Eta pentsatu nuen, janari gehiago?



Elikagaiak hotzean banatzen dira, balore nutritiboak ez galtzeko.



Diametro 200en, barazki eta elikagaiak garbitu, sukaldatu eta enbasatu egiten dituzte, banaketarako prest egoteko.

janari mardoa banatzen dugu. Baina hor dago arazoa, edo askorentzat hala da behintzat. Gipuzkoan ezin da imajinatu ere egin zenbat jende dagoen ekonomikoki gaizki pasatzen ari dena. Askok ez dute ERTEa kobratu, alokairuak ordaindu behar dituzte eta ezin dute, eta beste hainbat juxtu-juxtu iristen dira hilabete amaierara.

Egunero 5.000 ratio eginez gero, atera egingo ziren, eta denak banatuko ziren, sobrarik ez zen egongo, egoera ikusita. Baina haisieran planteatu genuena betetzen ari gara, eguneko 2.000 ratio egitea, eta banaketa Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dugu. Araban gutxitan banatzen dugu, badaudelako gure proiektuaren antzekoak diren bi ekimen. Bizkaian ere badaude pare bat, baina Gipuzkoan honelako inizatiba gutxi egon di-

«Hasieratik pentsatu genuen ideia ona zela, eta beharrezkoa, jendea benetan gaizki dagoelako ekonomikoki, Koronabirusak eragindako egoera dela eta»

renez, gehiena hemen banatzen da, eta konturatu gara, behar handia dagoela; jendeak ez dauka jatekorik.

2.000 ratio banatzen ditugu egunero, eta oraingoz 20.000 izan dira banatu ditugunak. Gure asmoa da urrira arte horrela jarraitzea. Gure helburua da, beharrezkoa den momentura arte lanean jarraitzea, nahiz eta alarma egoera amaitu, jendeak behar badu, lanean ja-

rraituko du Jakioro proiektuak, behar dutenak elikatzen. Bada-kigu, behin normalitate batera iristean, jendearen soldatak eta egoera ez direla urte hasieran zen berbera izango; beraz jarraitu egingo dugu. Apirila erdialdera eman genion hasiera ekimen honi, eta jada lau-bost aste daramazkigu.

Hortaz, kantitate berberak egiten jarraitzen duzue?

Bai, guk analisi bat egin dugu, gure elikagaiak banatuko ditugun jendearekin, eta azterketa hori egin ostean, erabaki genuen 2.000 ratio egitea egunero, ez gehiago eta ezta gutxiago ere; 2.000 egunero, astelehenetik ostiralera. Eta horrela mantenduko gara, urrira arte. Aurrerago, egoerak okerrera egiten badu, planteatuko dugu kopurua igotzea, baina oraingoz behintzat, kantitatea 2.000koa da, eta horrela jarraitzea da asmoa.

Elikagaiekin darabilkizuen metodologia, nolakoa da?

Lehenik, HAZIk, elikagaiak ekartzen ditu, barazkiak baserrietatik hartu eta Oronara ekarrita. Guk garbitu, prestatu eta enbasatu egiten ditugu, eta azkenik, Gurutze Gorriak egiten du banaketa, behar dutenei, jantoki sozialetara, Caritasera, elikagari bankuetara... eta beste hainbat tokitara.

Zein izan dira alarma egoera honetan hartu dituzuen neurriak?


Bai, noski, errealitate honetara egokitzea besterik ez zaigu geratu. Egunero Diametro 200era iristean, langile guztiok tenperatura hartzen dugu, sukaldia haundia denez espazioz oso lasai gabiltza, eta segurtasun distantziak mantentzen ditugu. Maskarillak erabiltzen ditugu, eta momenturo, alkohol berezi

bat erabiltzen dugu, desinfektante gisa. Eta eskularruei dagokionez, ez da batere gomendagarria sukaldian. Eskularruen materiala plastikoa da, eta ez da batere ona, hori sukaldearekin konbinatzen baduzu. Izan ere, beroarekin edo su ondoan, plastikoa arriskutsua izateaz gain, erre egin daiteke, eta pegatu. Beraz, horrelakoetan ez ditugu eskularruak erabiltzen, baina beti ari gara eskuak desinfektatzen, ondo garbitzen, eta ezarri dizkiguten segurtasun neurriak betetzen. Gainera, hau luzerako dela dirudi, eta behin alarma egoera amaitzen

«Egunero, Diametro 200era iristean, langile guztiok tenperatura hartzen dugu; eta sukaldia haundia denez, espazio lasai gabiltza, segurtasun distantziak mantentzeko»

denean ere, uste dut segurtasun neurri hauekin jarraitu beharko dugula, ostalaritza, sukalde eta jatetxe mundu honetan.

Enbasatzerako garaian, dena hotz dagoela egiten dugu. Hotz katea mantendu egiten dugu, hori oso garrantzitsua baita. Ssukaldatzen den unetik, generoa hoztu egiten dugu, 2 gradutara, eta tenperatura horixe mantentzen saiatzen gara. Kamera errefrigeradore batean enbasatzen dugu, eta banaketa ere hotzean egiten da, elikagaia ez galtzeko asmoz; bestela, balore nutritiboak galtzen ditu, eta ez guke janari osasungarria banatuko. **K**



ITUROLATARROK

Musika

Musika belarrietan eramaten dut oinez ibiltzera joaten naizenean, erabat deskonektatu eta egunerokotasunetik isolatzeko aukera eskaintzen dit, eta hori da, normalean, ibilaldi horiekin bilatzen dudana.

URUMEA BABESTUTAKO EDUKIA

Gaur, ordea, ez dut musikarik eramanez belarrietan.

49 egunetan, astean behin erosketak egitera besterik ez naiz kalera irten, eta onartuko dizuet, grina biziz espero nuela gaurko goiza. 49 egun horietan, musika izan dut bidelagun eta sekula baino gehiago entzun dudala esango nuke (eta hori, astakeria bat da). Gaur, kalera atera eta entzungailuak poltsikotik atera

ditudanean, musikarik nahi ez nuela konturatu naiz, hain justu, oraingo honetan, erabat deskonektatu eta egunerokotasunetik isolatzeko, musika etxean utzi behar nuelako.

Gaur kalea behar nuen. Kalea, eta bere soinua: aurreratu nauten autoak, ixten den kontainer bat, jendearen elkarrizketak, gurutzatzen dituzunen "aupa" itoak, haizeak mugitzen duen zuhaitz bat, txoriak, erreka, txori gehiago, zapaltzean belarrak ateratzen duen zarata, lokatza, airea... Muturren aurrean pareta puta bat ez izatea. Gaur ez nuen musikarik behar, gaur, kalea behar nuelako.

Mikel Alvarez Sarriegi
BIRA Produkzioak

Hernaniko Elkarlan Sorgunea
Iturola.eus
Florida Auzoa, 28 - 20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENAN
BABESTUTAKO ATALA
Eziago Poligonoa, 21
Zikuñaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus

Baserriko lanabesak

P	F	Z	C	E	A	Q	T	A	U	V	M	W	C
D	V	L	G	S	X	Q	I	M	M	B	S	U	H
X	P	A	V	K	A	J	J	Z	D	R	B	R	I
E	E	K	X	U	B	I	H	C	P	Y	V	F	G
I	G	I	T	A	I	A	T	C	X	X	W	O	U
G	P	K	L	R	M	A	G	Z	G	K	A	J	R
O	A	C	A	E	T	I	Y	N	U	V	K	P	D
L	L	K	I	A	S	Z	R	X	M	R	P	Z	I
D	A	S	A	V	A	K	O	C	U	W	R	P	A
E	T	L	R	U	R	O	W	O	J	U	B	A	Q
A	E	S	G	V	D	R	K	T	N	S	W	V	K
V	B	I	K	W	E	A	N	E	W	R	E	K	I
F	M	X	V	N	A	N	I	U	B	H	B	G	K
E	E	L	L	Q	K	N	I	K	T	N	R	E	A

- AITZURRA
- AIZKORA
- ESKUAREA
- GOLDEA
- GURDIA
- IGITAIA
- LAIA
- PALA
- SARDEA
- SEGA



EGURALDIA

GAUR



Goizean goiz hego-ekialdeko haizea ibiliko da; barnealdeko tenperatura maximoek berdintsu jarraituko badute ere, kostaldeko altuenak bizpahiru gradu igo daitezke. **Min.14° / Max.27°**

BIHAR



Bihar lehenengo partean eguraldiak ildo beretik jarraituko du. Goizeko giroa eguzkitsua izango da eta udako itxura hartuko du. **Min.15° / Max.28°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Gomez Kale Nagusia, 14 (Hernani) **943 554892** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

IRAGARKI MERKEAK

Garaje itxi bat alokatzen dut Karmelo Labakan. 95 €. **Deitu: 687 841 817**
Irakasle titulatuak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Online nahiz presentzialak. **Deitu: 943 12 41 28 (ez bagaude erantzungailuan utzi zure mezua)**
Lokal-garajea salgai, Arantzazu Plazan (udalaxe atzean). Bi kotxerentzako dauka tokia, eta zuzenean kalera joateko irteera. Sukaldea eta komuna ditu, eta 42m2. **Deitu: 699 492 235**
Kotxe txiki bat eta garajea salgai. Kotxea Picanto Kia, urte bateko garantiarekin. **Deitu: 651 188 007**
Soziosanitario euskalduna pertsonak zaintzeko prest, ziurtagiri eta kotxearekin. **Deitu: 678 992 110**
Emakumea lan bila: etxeko lanak egiteko, aitona-amonak zaindu, goizez eta arratsaldez. **Deitu 602 04 98 90**
Karabana txukun bat erosiko nuke. **Deitu: 688 66 50 45**
Sukaldari bila gabiltza Hernaniko jatetxe batean, esperientzia daukana. **Deitu: 943 55 64 81**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Ariketa matematikoa

□	-	□	+	6	=	4
x		/		+		
□	x	□	/	□	=	1
-		+		-		
□	-	□	+	□	=	5
=		=		=		
4		9		6		

Mezu sekretua

 EZRGARU NASE NNUE NETRIAAG, ATE IN ONIBA GOLANHEE ZNE RATNAIA

SOLUZIOA
 gezurra esan nuen getarian, eta ni baino lehenago zen atarian


Sudokuak

		5			3	7
	1	8		7	2	9
		5		9		8
			9	6	7	4
3	7				1	
5		4				
	5			3		1
6			7			
1		2		8	9	
						3

G	J			F		
		L				G
		L	H	J		K
L	F	N	I		G	J
M	I					
		G		L	I	
			L	I	H	
F	K	J		H		I
	J	M				

FGHIJKLMN

Labirintoa



© 2012 - 2020 anescliamone.es



Aurrematrikula irekita ekainaren 1etik 19ra

URUMEA PUBLIERREPORTAJEA

Martutene Lanbide Eskolak bi espezializazio mota eskaintzen dizkie, Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasi nahi duten gazteei:

- Elektrizitatea-Elektronika
- Informatika-Komunikazioak

Zer da Martutene Lanbide Eskola?

Martuteneko 27 poligonoan kokatutako Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxea gara. Gure ikasleei lan munduan sartzeko edo bere ikasketekin jarraitzeko oinarrizko formakuntza ematen diegu. Zentro txiki bat gara, ikasleei banakako arreta eskaintzen diegu, eta familiekin oso harreman estua dugu.

Zer esan nahi du OLHK?

Oinarrizko Lanbide Heziketa. DBHko helburuak lortu ez dituzten gazteei zuzenduta dagoen hezkuntza-programa bat da. Programa honetan 15 eta 17 urte bitarteko gazteak sar

daitezke. Gazteentzako ibilbide alternatiboa da. Ikasleak eta familiak OLHN hasia ez dute bizi behar porrota bezala, beraien helburuak lortzeko aukera berri gisa baizik.

Zein espezialitate eskaintzen dituzue?

Elektrizitatea-Elektronika eta Informatika-Komunikazioak. Bietan enpresetako praktikak egiten dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, gure web orrian kontsulta daiteke.

Zer lortu daiteke formakuntza honekin?

Alde batetik, Oinarrizko Lanbide titulua lortuko dute, eta bestetik, Kualifikazio Profesionaleko Katalogo Nazionaleko Lehen Mailako Profesionaltasun Ziurtagiria. DBHko titulua ere lortu dezakete.

Zein irtenbide ditu OLHK?

Ikasleak, bukatu ondoren, lan munduan sartzeko prest daude, baina ikasketekin jarraitu nahi badu, Erdi Mailako edozein ziklotan sar daiteke.



MARTUTENE LANBIDE ESKOLA
 Ubarburu Pasealekua, 30. 27 poligonoa.
 Martutene
 Tel: 943 46 01 45 - 610 787 001
 www.fpmartutene.org



Amodioaren joan etorriak



AITOR CARACCILO

URUMEA TELESAILETAN ADIKTUA

Ia konturatu gabe eta bizi ginen egoera arraroan, ia ekainean sartu gara buru belarri. Eguraldi onak suspertuta eta gure etxea behingoagatik atzean utzita, kaleaz pixka bat gozatzeko aukera berreskuratu dugu. Ez dakit zuei, baino niri umorea guztiz aldatu dit dena delako normaltasun egoerara bueltatzeko hasiera honek. Izan du honek efektu nabaria ere egunerokoan egiten nituen gauzen artean ere.

Lanera bueltatzeko eta kallean egoteko gogoak, lasaitasun kutxua eman diote nire bizitzari eta era berean honek telesailak ikusterako orduan ere, arintasun eta positibismo bidean jarri nau. Hau da, komediaren beharra nabaritu dut hilabete honetan. Drama edo thrillerreko dudak lotura fuertea pixka bat askatu eta reboluzioak jeisteko momentuan aurkitu naiz.

Esan beharra dago maiztasun ere hainbat proposamen potente izan ditugula: *Betty* (HBO) skater telesail minimalista izan dugu; Ryan Murphy profikoa *Hollywood* (Netflix) estreinatu da; *Billions* (Showtime, Movistar+) ezinbestekoaren 5garren denboraldia iritsi zaigu; Damien Chazelle zuzendari (*Whipash*, *La la land*) oskarizatuaren *The Eddy* (Netflix) bikaina ere ikusgai duzue iada; *Homecoming* (Amazon) galantaren itzulera 2garren denboraldiarekin; Mark Ruffalo protagonista duen *I know this much is true* (HBO) zoragarria ere gu-

rean da, honek egiten duen lan paregabea ikusteko aukera ezin hobea!... eta horrela beste hainbeste.

Komedia ikusteko gogoz izan naiz maiztasun

Baina esan dizuedan moduan, nere gorputza komedia ikusteko gogoz izan da eta beste ildo batek eraman dut ikuskatze erritmoa: *The Office* telesail handia berrikusten ibili naiz eta bere sortzailearen *Upload* berriari ere aukera bat eman diot (Amazon); Justin Roilanden *Solar Opposites* (Hulu), Rick and Morty ganberroaren sortzailearen lan berria; *Valeria* (Netflix), Elísabet Benavent idazlearen nobelen adazpazio librea; *Unbreakable* Kimmy Schmidt-en (Netflix) kapitulu interaktibo berezia; Edota *The great* (Hulu), Errusiako Katalina Handiaren bizitzan libreki oinarritzen den produkzioa, umore delirante eta arraroa oinarri, situazio eta gag bereziz beterikoa.

'Love life'-ek kuriosidadea

Hala ere, kuriosidade gehien piztu nauen telesaila, asteazken honetan, hilak 27, estreinatu zen *LOVE LIFE* dugu. HBO plataformak, Estatu Batuetan Max zerbitzu berriaren merkaturatzearekin batera estreinatu duena.

Ez dezala inork bilatu telesail hontan inolako maisulanik. Komedia erromantiko baten aurrean aurkitzen gara eta gainera arketipo eta funtsak lotsarik gabe eta modu eraginkorrean erabiltzen dituen produktua dugu. Modu arin eta bizkorrean kontaturiko istorioa, 30 minutuko 10 kapitulu ikus errazetan banatutako denboraldia, Anna Kendrick aktorea buru, hauetako bakoitzean bere bizitzako bikote ezberdinekin izandako erlazioa kontatzen diguna.

Sam Boyd gidoilariak sor-



'Love life' komedia erromantiko arina da.

tu eta idatzitako fikzio honek izan ditzazke agian, askotan ikusitako komedia erromantikoetako formak, hala ere, duen bizitasunak eta batez ere Anna Kendrick duen umorerako maisutasuna nabaria da. Protagonista izanik, beregan hartzen du kontakizunaren pisu guztia, bere betiko lan paregabearekin pantaila beterik. Hainbat estilo jorratu baditu ere, erraz ikusten da zergatik dugun gaur egun komediaren erreginetako bat.


Akaso iruditzen zait, aipagarria dela, telesailak egiten duen bizitzako une beltzen ezabatze txikia. Egia esan, erlazio unetan ardaztutako kontakizuna dugu, beraz hauen arteko bakarkako momentu 'bajuak' ez ikustearen apostua egiten du. Pertsonaiaren eboluzioa nabarmena bada ere, hauekiko begiradaxo

bat izateak ere merezi zuela iruditzen zait. Dena den, gustora asko ikusten ari naizen programa arineta entretenigarria.

Beste inork pentsatzen badu hau ez dela izango bere moduko telesaila, jo dezala hasieran aipatu ditudan zerrendako bes-

teetara. Baina nire moduan, udarako produktu fresko eta lasaigarri baten bila bazabiltza, egin kasu eta aukera bat eman lan honi. Gutxienez par batzuk aterako dizkizu eta gainera des-konektatzen lagunduko dizu eta. **K**

Iparragirre Sagardotegia martxan berriro



Berriro bueltan garelako ospatzeko Afaria eta Bertso saioa 35 €
Erreserbak 943 55 03 28

Bertso Jariak eta Berriak

Eñaut eta Unai Agirrekin eta Aitor Mendiluzekin.



Ekainaren 6an 20:30etan

Terraza zabalarekin eta segurtasun neurri guztiekin, lasai eta eroso egoteko.

